

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ASPARRENEKO UDALA

#### Menpekoen kategoriako plazetako karrerako bi funtzionario izendatzea

2020ko uztailaren 13ko ALHAOn (78. zk.) 2019ko enplegu publikoaren eskaintzari (2019ko abenduaren 18ko ALHAO, 145 zk.) buruzko behin betiko oinarriak argitaratu ziren, lehiaketa-oposizio sistemaren bidez, txanda irekian, menpekoen kategoriako hiru plaza jabetzan betetzeko. Bada, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko urriaren 4an hartutako erabaki bidez, karrerako funtzionarioen honako izendapen hauek egin dira, praktiketako bi funtzionarioen probaldia amaitu ondoren:

– José Ignacio Urrutikoetxea García. Plaza: 1 dotazioa. Zerbitzuetako peoia. Categoria: Menpekoak. Taldea: lanbide taldea. Titulazioa: eskola ziurtagiria. Dedikazioa: Osoa. Betetzeko era: oposizio-lehiaketa. Hizkuntza eskakizuna: 2, igarotako derrigortasun datarekin. Izendapenaren eragin data: 2021eko urriaren 7a.

– Aitor Legarda Egurrola. Plaza: 3. dotazioa. Pista edo kiroldagiko atezaina. Categoria: Menpekoak. Taldea: lanbide taldea. Titulazioa: eskola ziurtagiria. Dedikazioa: Osoa. Betetzeko era: oposizio-lehiaketa. Hizkuntza eskakizuna: 2, igarotako derrigortasun datarekin. Izendapenaren eragin data: 2021eko urriaren 4a.

Izendatutako pertsonen gehienez hilabeteko epea izango dute plazez jabetzeko, izendapena ALHAOn argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko (1) epean, ebazpena jaso ondorengo egunetik aurrera, hala xedatzen baita Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Aukerako berraztertze errekurtso hori aurkeztu ezean bide judiziala irekiko da, eta erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian (txandaren arabera dagokiona). Horretarako, bi hilabete izango dira, argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Araia, 2021eko urriaren 4a

*Alkatea*

**CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ**